Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Bikuña Agirre

Ataun, Gipuzkoa (1935)



Aurkibidea

Biografia



Joxe Ataungo San Martin auzoko Okarizti baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa eta ama, berriz, auzo bereko Aizkorriondo baserrikoa. San Martingo eskolan eta Beasaingo La Salle ikastetxean ikasten ibili ondoren, hamabi urterekin, Saturrarango seminariora joan zen bere ikasketak osatzera. Hamabost urte zituela, Saturrarandik itzuli eta baserri lanetan aritu zen kontabilitatea ere ikasten zuelarik. Hogeita bat urterekin Beasaingo CAF lantegiko laborategian hasi zen lanean eta bertan ibili zen erretiratu zen arte. Hogeita zazpi urte zituela ezkondu eta lau seme-alaba izan zituen. Ataungo ikastolaren sorreran lan asko egin zuen, guraso elkartean aktiboki parte hartuz.

Zintak

ATA-026

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Data**: 2011-11-10
- **Iraupena**: 61 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k)**: Pulido, Alejandro - Elexpuru, Juan Martin

ATA-027

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Data**: 2011-11-10
- **Iraupena**: 74 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider

ATA-028

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Data**: 2011-11-10
- **Iraupena**: 35 min

- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

ATA-037

- **Proiektua**: Goierri Telebista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Telebista, Goierri
- **Data**:
- **Iraupena**: 45 min
- **Euskarria**: DVD
- **Kodifikatzailea**: Sapsootham, Itziar
- **Emalea**: Telebista, Goierri

Pasarteak

1. Baserriaren jabeen historia

- **Erref**: ATA-026/003
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:03:08. **Bukatu**: 00:04:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Aitaren familiaren historia kontatzen du. Amona Okarizti baserriko nagusiaren semearekin maitemindu, eta elkarrekin ateratzen hasi ziren. Baina mutil hori hil egin zen; eta orduan haren lehengusu batekin ezkontzeko proposatu zioten. Proposamena onartu zuen; eta, horri esker, amona egin zen baserriaren jabe. Amona, baina, gazte geratu zen alargun, hiru ume zituela.

Transkripzioa
-Zuen aitten familie Okariztin urte askotan o... Bueno, zenbatgarren generazioa zen?
-Bai, e, hoi kontauko dizut, hor kaso kuriosoa bat zan. Gure amona Martina Barandiaran Urrestarazu, hau Okaiztiko garai hartako nausiin seme batekin enamoratu zan eo nobioa ein zun eta hala zebiltzela behintzet nobio hori hil egin zitzaion. Orduan Okaiztiko nagusi hoiek seme bakarra zuten eta beren illoba batekin propuesta in zioten ezkontzeko. Orduan, ba, onartu zuan eta beren etxe horren jabetza eman zioten. Osea ke guri etxe horren jabetza datorkigu pixka bat erregalo eginda, ez. Bai.
-Ya, ya.
-Hori da. Gure amandrea nik ezagutu nuen ondo, baiño aittunaik ez. Aittuna, gure aitte-da hiru senide zien eta gazteena da gure aitte. Eta gure aittek arteen uste det oso denbora gutxi zola hil zan, zea, aitte, bai, eta alargun gelditu zen gure amona hori. Hiru umekin.
- Edukiko zun lana, alargun.
-Bai, bai.

2. Beraiek umetan ezagututako eskola

- **Erref**: ATA-026/004
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:04:45. **Bukatu**: 00:06:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Ataun asko aldatu da lehendik hona. Lehen 6-7 urterekin hasten ziren umeak eskolan. Eskolan dena erdaraz ikasten zuten; eta, euskaldun hutsak izanda, arazo handiak izaten zituzten han moldatzeko. Joxek gogoan du orduan nola hitz egiten zuen erdaraz. Zigorrak jartzen zizkieten lehen: "la letra con sangre entra".

Transkripzioa
-Nola gogoratzen dezu zure ume garaitan herria?
-Bai, bueno, gaurti begiratuta ziharo alderantziz, ez? Gure garaien eskolan hasten giñen, uste det, ba sei-zazpi urtekin edo hola, gertunekok; baserrikoak ba geroogo. Garai hartan hemen, San Martiñen, eskola nazionalak zeuden, motillen aula bat eta neskena beste bat. Dana erderaz ematen zan ta guk ez giñukiun tutik´e eta orduan, ba, hor izaten gendun berealdiko oztopoa. Ni akordatzen naiz komunea juteko nola eskatzen giñun baimena maisuri: “has usté favor de mi erretrete” esan [ohi] giñun. Nik geroztik egon naiz pentsatzen, klaro, guk esaten genduan zerbait, baiño: “haga usted el favor de dejarme ir al retrete” izengo zan esan behar genduna, baiño guk ez giñukiun zer esaten gendun eta hola.
-Eta danok hori esaten zenduen?
- Ez, nik behintzet bai. Ez dakit besteek zer esango zuten edo, baiño gero ba, hoi, nola ez gendun ulertzen ba egurre izaten zan [hausiaten] edozein gauzagatik ba, belauniko jarri eta... edo liburu bi eskutan edo eskue hola jarri eta reglekin jo edo. Tipo hortako pedagogia zan garai hartan, ez? Ta esango dizuten ba, erderaz, ba: “la letra con sangre entra” ta holako gorabeherak, ez? Bueno.
-Erabiltzen zan esaldi hori.
-Bai
-“La letra con...”.
-Bai.

3. La Sallen oso gustura ikasi zuen

- **Erref**: ATA-026/005
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:06:28. **Bukatu**: 00:07:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:
9 urterekin, Beasaingo La Sallera bidali zuten, "lepatxuriengana". Han ikasi zuen Joxek 12 urtera arte; eta oso gustura ikasi zuen. Batik bat kaligrafia eta matematika lantzen zuten han.

Transkripzioa
-Ni ibilli nintzen hemen eskolan bederatzi urte arte hola, eta gero bialdu nittuen Beasaingo zeera, "Lepatxurik" esaten giñun guk, La Salleko kolegio hortaa.
-Lepatxurik?
-Bai, bai, hemen, hola, hemen zera bat eamaten dutenak. Hor ibilli nitzen

ni hamabi urte arte edo hola, eta oso gustoa, oso ikasketa ona ematen zuen, batik bait letra egite aldetik, eta matematika aldetik hola bereziki behintzet, e. Bestea ere ondo baiño batik bait hoi. Erakutsi ziguten letra inglesa ta redondilla ta kurioso egiten eta matematika alderdie ere bai.

4. Gosete-urteak seminarioan

- **Erref**: ATA-026/006
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:07:21. **Bukatu**: 00:09:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
12 urte zituela, Joxe seminariora joan zen ikastera. Gosete-urteak tokatu zitzaizkien han; ume asko ziren... Etxetik astero bidaltzen zieten pakete bat, janariz beteta. Pakete hartako erdia denen artean banatu behar izaten zuten nahitaez. Ogia oso preziatua zen garai hartan.

Transkripzioa
-Gero ba, garai hartan nola ez zan unibersidadeako-ta gaur daon erreztasunik-eta ba etortzen zien prailleek eta abar etxetaa, ba ya jun nahi al gendun praille ta historik-eta. Guk bagiñuzten familin oseba batzuk apaizek zienak-eta ta hoiek beti atxutxatzen gu're aber horrekin, eta urdun ba, ni hamabi urtekin edo jun nitzen seminarioa, zera, Saturrarana.
-Saturraran?
-Bai, Saturrarana. Han egon nitzen hiru urte ta zerbait edo eta gero handik atera egin nintzen.
-Erraza zen ateratzea?
-E?
-Erraza zen ateratzea?
-Bai, bai, bai. Gaiñera tokatu zitzakun urte oso txarrak, goseteko urtek, gerrate ondorenen, eta ume asko giñen eta han ba gosea-ta. Etxetik astero bidaltzen ziguten pakete bat eta hemen rekadista bat zan Lazkaokoa. Horrek asteen egun bat hortan pasatzen zon, paketek eaman eta eitten hautza. Seguruik asko ez dakit zenbat kostauko zan baiño paketea gehiao kostauko zan eamatea bertan balio zuena... Normalmente bialtzen ziuten ogi haundi hoietako bat, letxe kondensada, txokolate ta holako zerbaittekin. Ta gero han mahaiko lagunei, ez dakit. mahien izaten giñen, ba igual zortzi bat lagun edo, ba, obligazioa genduken pakete horren erdie besteeri emateko. Urdun ogie ta horik apreziatzen zien, ba gaur ez bezela, eta nahiz zortzi egunekoa izan egotea ditxa, gustoa jaten gendun zegati otordu bakoitzean ematen ziun holako ogi puska ttiki-ttiki bat eta harrekin aritzen giñen, ba, esnaurrean (hausnarka) bezela, denbora pasa arazitteko.

5. Seminarioko janaria

- **Erref**: ATA-026/007
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:09:18. **Bukatu**: 00:10:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Saturrarango seminarioan zeudela, morokila ematen hasi zitzaizkien. Baina, hura janda, umeak gaixotu egin zirenez, arto-ogiak prestatu zituzten. Beste janari batzuk ere jaten zituzten: antxoa, baba...

Transkripzioa
- Gero ba, izan gendun kontratienpo bat, goizen ematen hasi zitzakun Bizkaiko zera bat, e, morokilla izeneko... Hori eitten zuten arto-iriñe urekin masa ein eta besteik be, eta hori botatzen zitzaion esneri edo uresneri edo eta hori hartu. Eta gertatu zan ba, jo!, izugarrizko diarrea sortu ziun danori, eta urdun eskerrak rapido antxen zeatu zuen, reakzionau zuen eta kanbiau zuen asunto hori artokin. Artoa, arto-taloa eo esaten zaiona, bueno, arto-taloa ez, arto-ogie esaten zen, hoi izaten da lorigoa ogie bezela egiten dana, hori oain ere saltzen da. Eta hoi, zopak ein. Eta nahiz uresnea izan ba horrekin bezperatik irakitten edukitzen zuen eta hoi izan zan izugarringo aziertoa. Bai indar aldetik eta osasun aldetik eta dana, bai. Bestela berriz, ba, antxoa eta hoiek, ba uretan egosita ematen ziguten. Ganaduei ematen zaion baba haundi hori eta hori lehenengo egunetan, ba, oilaskok apartauta jartzen giñuzten plateren bueltan baiña geo hirugarren egunerako ba, hi!, honek danak alimentoa izango dik eta "adentro", entenditzen dezu? Pixka bat adierazteko, ba, ze egoera gogorra izan zen asunto hoi, ez? Bai.

6. Seminarioko noten oinarria

- **Erref**: ATA-026/008
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:10:55. **Bukatu**: 00:12:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:
Saturrarango seminarioan ikasitakoa mesedegarri izan zitzaion Joxeri. Gogoan du orduko anekdota bat: komentario xalo batengatik, jarrerako notan 0 jarri zioten.

Transkripzioa
-Nik beste gaiñerantzin (gainontzean) eskertzen det han ikasitakoa ta han eakutsitakoa ta hango giroa ta hango euskal giroa ta gauza hoik danak nik uste det mesedegarri izan zela, bai. Ni pixka bat handik alde in non, euki non kaso bat, ateratzen giñen paseatzea ta handik Ondarru aldea-ta eta, bueno, han juten giñen alkarrekin hizketan ta abar eta beti aldamenetik juten zan profesoren bat edo bijilatzen edo zer esaten gendun edo, ta bat bazan oso mistikoa zana eta nik beste launei han pasatu zan, zera, kamioneta ttiki bat, guri esnea eamaten ziuna, eta beste lagunei esan [nien]: hi, bazetorrek, zea, letxeroa "etxando letxes". Bueno, nik, inungo gaizki esan nonik eta ez zaten ordun irudittu baiño geo hillen bukaeran notak ematen ziun. Hiru nota izeten zan, Urbanidad, Conducta eta bestea Aseo, holako zerbait zan eta... taka! Aillegau zan nere izena eta... “fulano

de tal, Joxe Bikuña Agirre: ocho, cero, ocho, ya sabrá por qué es eso". Nik ez nekin ta gero jun nitzen tipo horregana kuartora ta historik-eta esan zidan zergatik zen. Hoi zen pekatue kristona, "ya viene el coche del lechero echando leches". Nik oaindik ere ez det zeatzen hor ze disparate daon edo, baiño hala zan, hala zien urdun gauzak eta abar. Bueno.
-Eta zeroa konduktan zihoan edo?
-Bai, bai, hoi da.

7. CAFeko laborategian, gustura lanean

- **Erref**: ATA-026/009
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:12:40. **Bukatu**: 00:14:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Goierriko lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
15-16 urte zituela, etxera itzuli zen, eta baserriko lanetan aritu zen. Horrez gain, mekanikari lotutako kontuak asko gustatzen zitzaizkion, eta mekanikari buruzko Amerikako aldizkari batzuk oso gustura irakurtzen zituen. 22 urterekin, CAFen sartu zen lanean, laborategian. 43 urtez aritu zen han lanean. Gustuko lana zuen, eta gustura aritu zen.

Transkripzioa
-Bueno, handi etorri hamabost-hamasei urtekin edo eta gero ibilli nintzen pixka bat hemen, baserrin lana eiñez, kontabilidadea ikasi ta holako gorabeherak. Baita ere ba neri mekanika asuntoa ta hola asko gustatzen zitzaten eta hor garai hartan bazien hor amerikano errebista batzuk-eta ta hoiek asko gustatzen zitzaten. Eta gero lortu non CAFen sartzea, ez dakit hogeita bi urtekin edo hola. Sartu nintzen zea laborategin, eta han jarri nittuen ensaio mekanikok edo esaten dan sekzion, materialan erresistentzik ta gorabehera hoiek neurtzeko asunton. Hango buru izatea iritsi nitzen eta eon nitzen han, lantoki hortan bertan, berrogeita hiru urten-edo. E, bueno, ez dakit; neri gustatzen zitzaten langintza zan eta gustoa ibilli nintzen, nahiz ta askotan ba zenbait truko edo histori ein behar izan, ez? Materialak justo antxen baldin bazebiltzen resistentzin edo zenbait gauzatan ba hoiek ba nolabait pasatzeko bidek egiñarazitzen zizuen eta abar eta holako gorabehera batzuk bazien. Baiño beste gaiñontzen ba gustora.

8. CAFeko laborategiko lanak

- **Erref**: ATA-026/010
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:14:21. **Bukatu**: 00:15:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Goierriko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:
CAFeko laborategian aritu zen lanean 43 urtez. Horretan aritzeko, hainbat gauza neurtzen zituzten. Teknologia aurreratu ahala, lana izugarri erraztu zen.

Transkripzioa
-Hor izan beharko zan ofizioa ikasteko, ofizio hori o bueno zea hori ikasteko, laboratorioko lan hori ikasteko jakintza beharko zan, ez? Funtzionamendua, konposizioak-eta izango ziren.
-Bai, bai, bai. Bai, bai. Klaro, gu ez giñen sartu analisisetan, ez. Gurea zan mekaniko asuntoa batik bait, ez. Osea ke makinan bittartez ikusten zan erresistentzie, fragilidadea, elastizidadea ta gauza hoiek danak, ez. Hoiek neurtzen giñuzten guk batik bait. Beste sekzio baten berriz ba, eitten zuten ba, material horren analisiak, ez. Hori ere ba hasiera baten izugarrizko lana zan eta bai, preparazio haundia eskatzen zona, baiño hori ia geroa sortu zien kuantometro deitzen zaion makina batzuk eta zuk material baten muestra pixka bat pulittuta jartzen zendun han leku baten eta hor korradiazion bittartez ematen zizun ba hogeita piko elemento zea horrek zeuzkenak, ez. Ya gauza erreztu zan izugarri. Bai, bai.

9. Seminarioko ikasketen balioa

- **Erref**: ATA-026/011
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:15:31. **Bukatu**: 00:16:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:
Seminarioa, garai hartan, oraingo batxilerraren baliokidea zen. Saturraranen ikasi zuen Joxek; eta handik, Gasteiza joaten ziren. Ikasketa haiek 12 urte irauten zuten.

Transkripzioa
-Eta gero seminarioan egon ziñen garaieko galdera pare bat: ze ikasten zan seminarion?
-Ba, esango genduke ba, garai hartako batxillerra, esango genduke, bai. Lehenengo hor egoten zien lau bat, lau urte uste det, Saturraranen, Donostiko seminarioa berria egin zan bittarte; eta gero hortik joaten zien zeera, Gasteiza. Hor ya ikasten zuen Filosofie ta Teologie. Karrera horrek gero irauten zun, uste det hamabi urte edo. Bai.
-Badie, e.
-Bai.
-Bai, eta lehenengo fase hortan bazan ba batxiller baten erako ikasketak. Bai.

10. Seminarioko bizimodua

- **Erref**: ATA-026/012
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:16:18. **Bukatu**: 00:17:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:
Goi-mailako ikasketak izateko, seminarioa aukera ona zen. Hango bizimodua nolakoa izaten zen azaltzen du.

Transkripzioa
-Eta zea, ikasketetan jarraitzeko seminarioa jutea zan aukera bakarra, ez zeon beste…?
- Ez, ordun ein zazu kontu hoi nola zan. Gu hemen eon giñen Ataundik kurso berdiñen beratzi lagun. Nere anaie bat eon zan Tolosako sakramentinotan eta hemendik hola jendea ba izugarri izan zan, klaro, beste irtenbiderik ez zeon eta etxean gehienak bazuen bakarren bat apaize, praillea edo monja-edo eta ordun ba hoien insinuazioz-edo ba bide hoi jotzen zuten, geo nahiz gehienak bueltan etorri baiño… En fin. Bai.
- Ya, ya. Eta han errezua-ta egiten zenduen, errezau…
-Bai, bai, baiño normal, e. Goizen jeki ta lehendabizi egiten zana aseatu eta kapillan ba meza eta zerbait kantatue, eta gero ya gosaria, eta gero klaseak hasten zien, eta egunen zehar ba klaseak eta gero, zea, denbora libre-ta jolasteko. Bai, normal nik uste det alderdi hortatik.
-Eukitzen zenduen denbora librea ere?
-Bai, bai, bai, bai. Eta gero han Saturraranen ba behintzet negu garaitik kanpo ba plaia-ta asko aprobetxatzen gendun futbolean ibiltzeko ta bueno.
-Futbolean ibiltzen ziñeten.
-Bai, futbolean batik bait bai. Bai.

11. Saturrarango maisu ona

- **Erref**: ATA-026/013
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:17:44. **Bukatu**: 00:19:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:
Saturrarango seminarioan ikasi zueneko maisu bat gogoan du: izarrak erakusten zizkien; arrantzara eramaten zituen; merienda berezia ematen zion Artizarra lehenengo ikusten zuen ikasleari...

Transkripzioa
-Gero, e profesore bat bagendun, Ondarrutarra, arrantzaleen semea, Don Antonio Basterretxea. Hau oso tipo artistea zan, oso herrikoia eta honek zenbait gauetan ba haruntza, han, Saturraranen arroka batzuk daude pixka bat itsasoan ateratzen direnak. Hauntza eaman eta erakusten aritzen zitzakun konstelazioak eta izar desberdiñek eta gorabehera hoik danak eta gu oso gustoa eoten giñen. Gero beste gauz bat honek eitten ziuna zan, atsalde hola libre gendukenetan-eta arrantzaa eamaten giñuzten arroka hoietaa baita ere kañan batzukin, tak! Orduan ateratzen genduna bakutzarentzako zan, hue jartzen ziun prejittuta edo eta bakutzai ematen ziun eta amorrauta ibiltzen giñen zerbait zertzen, han harrapatzen giñuzten txistuk eta lubinak eta holako aparatok. Gehiegi ez, baiño behintzet…

- […].
-Bai. Gero beste gauz ba ni konturatzen naizena tipo honekin da, juten giñan kurson hasieran, juan ta berehala esaten zon ea Venus edo Artizarra lehenengo ikusten donai merienda berezi bat.
-Ze ba?
´-Artizarra, “Venus”. Hori da planeta bat egunez ikusten dana eta hori lehenengo ikusten zonai ba zera, sari hoi ematen zion. Han egoten giñen ba puntuak hartu desberdiñek, akordatzen naiz ni telefonoko hari batzun tartea-ta nundik billatzen gendun hori eta hoi lehenengo billatzen zonai ba sari hori ematen zioten.
-Eta ze sari zan?
-Merienda bat.
-A, merienda.
-Bai, ta orduan ba merienda, guk genduken goseekin ta ba, joe..
-Eskertzen zan.
-Bai.

12. Seminarioan, giro ona; baina gosea oso presente

- **Erref**: ATA-026/014
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:19:41. **Bukatu**: 00:20:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:
Seminarioan zebilela, bere kurtsoan 90 ikasle ziren. Guztira, 250 ikasle inguru izango ziren han. Giro ona zegoen ikasleen artean, baina gosea oso presente zegoen.

Transkripzioa
-Zenbat zeudeten danea, zenbat mutiko?
-Gure kurson laurogeita hamar edo; eta danea ba hiru kurso edo lau ez dakit zer egongo zien, ez zien hain ugarik beste kursok baiño berrehun ta berrogeita hamar lagun edo, bai, bai.
-Gipuzku guztitik?
- Bai, Gipuzkua guztiti, bai, bai.
-Ta giroa ona zan zuen arten edo liskarrak izaten zien?
-Ez, ez, giro, giro ona, giro ona zan. Bakarrik ba… ba hoi, gose-haize hoi eta paseatzea ateratzen giñenen'e han sagasti baten ingurun pasautakon ba sagarren bat edo hartzea nahi izaten gendun baiño, jolin!, hoi pekatu mortala zan eta han aguantau behar izeten gendun ahal zan bezela. Bai.

13. Ataungo ikastolaren sorreraren aurrekariak Lazkaon

- **Erref**: ATA-026/016
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:21:05. **Bukatu**: 00:22:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Ikastolaren sorrerari buruz hitz egiten du. 1965 inguruan hasi zen Ataunen sortzen; Lazkaoko ikastola sortu zenetik, inguruko herrietara zabaldu baitzen mugimendu hori.

14. Ataungo hezkuntza ikastola baino lehen

- **Erref**: ATA-026/017
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:22:15. **Bukatu**: 00:23:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Ikastola sortu baino lehen, Ataunen eskola pila bat zeuden.

15. Ikastola sortzeko, gurasoen babesa lortzea ezinbestekoa zen

- **Erref**: ATA-026/018
- **Iraupena**: 0:03:22. **Hasi**: 00:23:26. **Bukatu**: 00:26:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Ataunek demokratikoki aukeratutako alkateak, agintera iritsi zenean, hiru helburu jarri zituen. Pixkanaka, jendeari ikusarazten joan ziren hezkuntza beste era batekoa izan zitekeela. Nahiz eta ados egon, gurasoak beldur ziren: hutsetik hasi behar zuten, garestia zen... Baina, hala eta guztiz ere, hainbatek ontzat eman zuten hezkuntza-proiektu berria. Donostiako Elbira Zipitriaren esperientzia eredugarria izan zen beraientzat.

16. Ikastola oilategi batean

- **Erref**: ATA-026/019
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:26:48. **Bukatu**: 00:29:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Gurasoen buruak askatu zituztenean, Ataunen, 1966-67ko kurtsoan, ikastola sortu zuten, 14-16 umerekin. Lekuarekin arazoak izan zituzten: errenta altuak, obrak beraien gain zeuden... Azkenean, oilategi batean hasi zuten ikastola; behar bezala prestatu zuten hura auzolanean. Oilategirainoko bidea egiteko baimena nola lortu zuten azaltzen du.

17. Ikastolako irakasleak bilatzeko zailtasunak

- **Erref**: ATA-026/020
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:29:02. **Bukatu**: 00:29:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Ikastolako lehenengo irakaslea Begoña Munduate izan zen. Orduan, oso jende gutxik egiten zituen maisu-maistra ikasketak, eta horregatik, hemengo irakasle gehienak kanpotarrak ziren.

18. Elizak ikastolari emandako babesa

- **Erref**: ATA-026/021
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:29:52. **Bukatu**: 00:31:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Ikastolaren finantziazioa, hasieran, ikasleen gurasoen esku zegoen; gerora, bazkideen esku; eta, gerora, Elizak ere babes handia eman zuen. Xabier Zubizarreta apaiz-lagunkideak, gainera, maisu-ikasketak egin zituen, eta bera ere ikastolaren problematikan murgildu zen.

19. Ikastolako metodologia berritzaileak

- **Erref**: ATA-026/022
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:31:10. **Bukatu**: 00:32:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Ikastolaren helburua zen irakaskuntza euskaraz ematea eta heziketa hori integrala izatea, umea osoki osatzea. Orduko metodologian, umea zen garrantzitsuena. Jolasari garrantzi handia eman zitzaion, eta metodo horri esker, umeak oso pozik joaten ziren ikastolara.

20. Don Juan Barandiaranen testamentua

- **Erref**: ATA-026/023
- **Iraupena**: 0:04:25. **Hasi**: 00:32:20. **Bukatu**: 00:36:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Ikastolaren arrakastak eskola nazionalen beherakada ekarri zuen. Mojek ere hezkuntzaren ardura uztea erabaki zuten. Don Juan Barandiaranek, hil zenean, Ataungo umeen heziketarako utzi zuen eraikin bat; baina baldintza baten pean: hiru kongregaziok eraman behar zuten haren ardura, horrela, heziketa kristaua bermatzeko. Kongregazioek ardura hori gehiago hartu nahi izan ez zutenean, arazoak etorri ziren, testamentua errespetatu behar baitzen. Orduan, Setien gotzainarengana joan ziren laguntza eske. Arazoak eta trikimailuak egon ziren, baina.

21. Mojak joan ostean, patronatuak hartu zuen ikastolaren ardura

- **Erref**: ATA-026/024
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:36:45. **Bukatu**: 00:38:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Mojak Ataungo hezkuntzatik joan zirenean, patronatua sortu zen. Haren ardura zen irakasleak aukeratzea eta eraikina jartzea. Irakasleen soldata, baina, gobernutik ordaintzen zen. Garrantzitsuena irakasle onak eta aproposak bilatzea iruditzen zitzaien. Orduko lehenengo andereñoak gogoan ditu.

22. Ikastolaren arazoak eta lorpenak

- **Erref**: ATA-026/025
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:38:23. **Bukatu**: 00:39:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Ikastolaren lokalarekin eta irakasleen prestakuntzarekin arazoak izan zituzten; baina aurre egin ahal izan zieten. 1968an beste ikastola bat sortu zen San Gregorion: 6 bat haurrekin hasi, eta 33 ingururekin bukatu zuten.

23. Alkatearen pisua ikastolen auzian

- **Erref**: ATA-026/026
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:39:56. **Bukatu**: 00:42:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Demokratikoki aukeratutako alkatea izan zuten Ataunen, baina gobernadoreak dimititzeko eskatu zion. Alkateak babesa izan zuen, eta jarraitu egin zuen. Kargua utzi zuenean, gobernadoreak Ataungo eskola nazionaleko maistra jarri zuen alkate, eskola nazionalak bultzatzeko asmoz. Orduan, oinarrizko baldintza batzuk eskatu zituen Ataungo patronatuak, euskarazko irakaskuntza

bermatzeko, eta irakasleek jarraipena izan zezaten; baina alkatetzatik ez zituzten onartzen.

24. Francoren heriotzaren osteko hezkuntza

- **Erref**: ATA-026/027
- **Iraupena**: 0:03:34. **Hasi**: 00:42:43. **Bukatu**: 00:46:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Franco hil ostean, patronatuaren sistema ezabatu egin zen irakaskuntzako legeetan. Beste antolamendu bat sortu zen orduan: eskola pribatuak, publikoak eta hitzartuak. Orduko zailtasunak aipatzen ditu. Eusko Jaurlaritza ezarri zenean, herri-eskolak jarri zituzten herri txikietarako. 1984an, eskola berriaren aroa hasi zen, beraien ametsaren bukaera. Orduan ere, zailtasunak egon ziren.

25. Herri-eskolak eta ikastolak

- **Erref**: ATA-026/028
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:46:17. **Bukatu**: 00:47:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Herri-eskola eta ikastolen arteko aldeak aipatzen ditu. Ordura arteko eskola txikiak herri-eskolan pixkanaka joan ziren elkartzen.

26. Bailaran elkalanean, ikastolaren alde

- **Erref**: ATA-026/029
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:47:44. **Bukatu**: 00:50:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Ahalegin handiena maila oneko irakasleak lortzea izaten zen. Bailarako ikastolen arteko elkarlana sortu zuten, ikastolaren hezkuntza-eskaintza luzatzeko. Kilometroak ekitaldia sortu zuten garai hartan Beasainen.

27. Ikastola finantziatzeko bideak

- **Erref**: ATA-026/030
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:50:28. **Bukatu**: 00:52:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Aseguru-etxe batek eskaintza berezia egin zien, eta handik lortutako irabaziak bailarako ikastolen gastuak ordaintzeko erabiltzen zituzten. Auzolanean, tonbola egin zuten; eta hortik lortutako dirua ikastolarako izaten zen. Gerora, diru-laguntzen sistemak asko erraztu zuen kontua.

28. Herritarrek ikastola onartzeko prozesua

- **Erref**: ATA-026/033
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:53:57. **Bukatu**: 00:55:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Herrian, hasieran, borroka gogorra izan zuten, auzoetan ez baitzuten nahi bertako eskolak ixterik. Baina azkenean, bilera eta elkarrizketa ugari izan ostean, pixkanaka jendea konbentzitu egin zen.

29. Eskola nazionala vs ikastola

- **Erref**: ATA-026/034
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:55:03. **Bukatu**: 00:57:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Eskola nazionaletako maisu-maistrek fronte izugarria sortu zuten ikastolaren kontra, eta berealdiko irainak asmatu zituzten. Gauzak pixkanaka baretu ziren, batzar ugari eta eztabaida gogorren ostean.

30. Demokratikoki aukeratutako alkateak pasa beharrekoak

- **Erref**: ATA-026/035
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:57:11. **Bukatu**: 01:00:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:
Ikastolaren sorrerako garaian, alkatea demokratikoki aukeratu zuten Ataunen. Hori lortzeko prozesua nolakoa izan zen azaltzen du. Zailtasunak eta arazoak egon ziren, baina aurre egin ahal izan zieten.

31. Gurasoen batasunaren indarra

- **Erref**: ATA-027/001
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Behin greba egin zuten, haurrak Lazkaoko eskolara eraman nahi zizkieten, han ikas zezaten. Gurasoak antolatu egin ziren; eta, azkenean, lortu zuten haurrek Ataunen ikasten jarraitzea. Gurasoak lokal batean elkartzen ziren, eta botazio bidez hartzen zituzten erabakiak.

32. Ikastola sortzeko ideia

- **Erref**: ATA-027/002
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:01:43. **Bukatu**: 00:03:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Ikastola sortzeko ideia nork eta nola sortu zen azaltzen du.

33. Beasaingo bileren aberastasuna

- **Erref**: ATA-027/003
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:03:25. **Bukatu**: 00:04:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Beasainen biltzen ziren Goierriko herri guztietako guraso-elkarteak. Han andereñoentzako prestakuntza ere ematen zuten. Gerora, prestakuntza Bergarako UNED irakaskuntzaren bitartez lortu zuten.

34. Ikastola finantzatzeko bideak

- **Erref**: ATA-027/005
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:04:42. **Bukatu**: 00:06:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Ikastolak sortzean, dirua lortzeko, hainbat ekintza eta bide urratu behar izan zituzten.

35. Elizak ikastolari emandako babesa

- **Erref**: ATA-027/006
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:06:29. **Bukatu**: 00:07:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:
